

# Beste funtzio (diskurtsibo) bat: *apartea*

Juan Garzia Garmendia

Euskaltzaindiko Gramatika Batzordea

## ***Laburpena***

*Perpausaren azalpen gramatikaletan, badira osagai batzuk kanpoan geratu ohi direnak, edo kategoria-sailkapenetan kokapen garbirik izaten ez dutenak: perpausari buruzko bigarren predikazio bat dakartenak, hain zuzen. Nahaspila edo lausotasun hori era berean dagokie, nik uste, bai kontzeptuei eta bai terminoei, eta horretan argi pixka bat egiteko asmo xumea du artikulu honek. Hizkuntza-erabiltzaileari begira egina dago, eta ez teoria sintaktikoari. Proposamenaren muina: ahalik eta ondoen bereiztea: a) diskurtso-markatze funtzio orokorra (aparte kategoriari dagokiona); b) kasuan kasuko eginkizun berezia (perpauondo, lokailu, testu-antolatzaile), eta c) zeregin hori betetzen duten pieza lexiko espezializatuak (noski, ordea, hots).*

## **0. Sarrera: *Hasikinik gabe, aurrerabiderik ez***

Gogoan dut nola, artean txit(o) gazte —1980 aurretik, ustez—, argialdi ia estasisko bat izan nuen, zoritxarrez zehazki kokatzerik lortu ez dudan egokiera batean, euskararen kategoria sintaktiko behinenen azalpen labur, zehatz eta guztiz aplikagarri bat irakurririk Ibon Sarasolari. Badakit hiztegegintzarekin loturik zegoela berez kontua, haren beharretara ekarria, baina, tamalez, ez naiz gauza izan, ahaleginak ahalegin, arrastorik zertzeko haren idatzietan. Ea honen irakurleren batek.

Banuen ikasketaz puntarengo sintaxilarien berri, baina nire kezka ez zen —eta ez da— euskarak Gramatika Unibertsalari eman diezaiokeen elikagaia, baizik eta arlo horretako aurrerapenek praktikan —hots, erabilgarritasunari begira— euskararen gramatikaxoari ekar diezaioketen onura. Garbi esanda: mundu guztiko hizkuntzalarien lan teknikoaz *baliaturik*, argibide erabilgarriak eskaintzea euskal hiztunei.

Halako zerbait aurkitu nuen nik azalpento hartan, eta, aldeak alde, bide horretan aurrera egin nahi luke honek: euskal hiztun orok darabiltzan mekanismoen atal berezi baina garrantzi handiko bat<sup>1</sup> *interesa duen edonork ulertzeko moduan* (!) azaltzeko ahalegina.

---

<sup>1</sup> Askotan azpimarratu da, besteak beste, lokailuek euskararen joskeran duten baliagarritasun zabala, menderagailuak gutxiago erabiltzen direlarik inguruko erdaretan baino.

Ez naiz gehiegikerian ari esaten badut handik piztu zela, hein handi batean, neure eguneroko jardunean —irakasle, itzultzaile eta idazle gisa— lan-tzen nuen euskararen joskera gramatikalariaren ikuspegitik (ere) maiseatzeko nire grina hau, urte luzeen ibilian honaino ekarri nauena.

Nire esker on guztiz atzeratua, bada, Iboni, hiztegingintzatik kanpo ere bide-markatzaile izateagatik. Badakit nekez izan lezakeela nire aletxo honek halako eraginik, baina biz saio hau zor zahar horren, kitagarri ez bada, aitogarri bederen.

## 1. *Aparte kontzeptua*

Jo dezagun garbi samar dagoela, oro har, argumentuen eta adjuntuen arteko bereizkuntza, sintaxiari dagokiona: argumentuak predikatuak hautetsiak dira (osagarriak), eta adjuntuak, berriz, hari gehiturikoak (zirkunstantzialak<sup>2</sup> eta).

Aditz-predikatuekin doazenei gagozkiela, esan daiteke aditezko predikatua —hemendik aurrera, sinpletuz: aditza— den gune horren jiran daudela osagaiok esaldian<sup>3</sup> (elektroiak nukleoaren jiran bezala): barrenengo geruzan, argumentuak; kanporagokoa, adjuntuak. Adjuntuak gabe, esaldi oso baten egitura du oraindik esaldiak; argumentuak gabe, berriz, ez.<sup>4</sup>

Argumentuak zein adjuntuak, hala ere, predikatu —sinpleagotuz, aditz— baten mende daude biak ere, aldeak alde. Absolutiboan, ergatiboan eta datiboan doazen sintagmak<sup>5</sup> definizioz dira argumentu<sup>6</sup>, kasuan kasuko aditzak eskatzen baititu. Funtzio hori betetzen dutenez landako sintagma batzuk, berriz, adjuntu ez ezik, argumentu ere izan daitezke, forma berean, zenbait aditzek halakoak hautesten baitituzte:

<sup>2</sup> Zirkunstantzialen katalogoa: NORENTZAT, NOREKIN/ZEREKIN, ZEREZ, ZERGATIK/NOR(EN)GATIK, NON, NONDIK, NORA(-NTZ, -I, -INO) [eta bizidunentzako aldaerak: NOR(EN)GAN...], NOIZ, NOIZTIK [edo NOIZDANIK], NOIZKO, NOIZ ARTE, NOLA, ZENBAT.

<sup>3</sup> *Perpau bakun* eta *perpau konposatu* kontzeptuak izendapen bat berean biltzeko erabiliko dut hemen, hoberik ezean, *esaldi* hitza. Hots, menderagailurik gabeko aditz baten inguruan antolatutako perpau —bakun zein konposatu— osoari deituko diot esaldi. *Perpau*, izan ere, *mendeko perpauak* ere badira, eta nolabait bereizi behar.

<sup>4</sup> Argumentuak isildurik edo inplizitu egon daitezke esaldian, baina haren esanahiaren parte dira orduan ere: predikatuak eskatzen dituelakoxe joan daitezke isildurik, hain zuzen ere, adjuntuak ez bezala.

<sup>5</sup> Bestela esanda, subjektua, osagarri/objektu zuzena eta zehar-osagarri/objektua.

<sup>6</sup> Kasu hori ia aztertzeke badago ere, ZERTAZ/NORTAZ galderari dagozkionak ere argumentu dira. ZERI/NORI BURUZ dutelarik sinonimo [ZEREZ eta ZEREKIN dira adjuntu instrumentalei dagozkienak]. Argumentu dira, orobat, ZERTAN, ZERTATIK, ZERTARA eta ZERTARAINO [ZERTA(RA)KO moldekoak (zein, Iparraldean, ZERENTZAT sinonimokoak) argumentu (perpau osagarri) zein adjuntu (helburuzko perpau) izan daitezke]. ZENBATEAN, ZENBATERA, ZENBATERAINO ere argumentu dira; [ZENBAT + mugagabeko atzizkia] osae-rakoak [ZER/NOR + mugagabeko atzizkia] osae-rakoen paraleloak dira, eta atzizkiaren arabera erabakitzen da, beraz, argumentu ala adjuntu diren (ala, kasuren batean, bi aukerak dituzten, aditz bakoitzarekiko konbinazioaren arabera). Adjuntu dira, halaber, -I BURUZen gisako postposizio konplexuez eratutak: -EN ALDE/GAINEAN, -Z/-EKIN BATERA...

- (1) lagunekin (afaldu) [*afalduren* adjuntua, zirkunstantziala, NOREKIN]
- (2) lagunekin (elkartu) [*elkarturen* argumentua, NOREKIN]

Funtzio informatiboei dagokienez, argumentuak zein adjuntuak galdegai zein hizpide izan daitezke esaldian. Argumentuak ezin daitezke gehikuntza izan (definizioz hori ere, haiek gabe ez baitago esaldirik); adjuntuak, berriz, bai (kanpoko geruzakoak izanik, haiek gabe ere bada-eta esaldi osorik):

- (3) \*Tabernan elkartu da, lagunekin.
- (4) Tabernan afaldu du, lagunekin.

Mendeko perpaus gehienek argumentu-funtzioa edo adjuntu-funtzioa betetzen dute esaldiaren syntaxian, eta ez dute alderik, funtzioari dagokionez, perpausik gabeko sintagmekiko, forma, osaera eta hedadura gorabehera:

ZER (argumentu beti, subjektu zein objektu izan)

hori  
markesen lorategi ederra  
gertatutakoa  
indarra galtzea  
zeharo ahuldu dadin

NOIZ (adjuntu zirkunstantzial beti)

etzi  
hurrengo egunean  
oiloak pixa egitean  
gatza loratzen denean

Laburtuz, ezaugarri batek behintzat kidetzen ditu argumentuak eta adjuntuak: galdegai funtzioan joan daitezke; eta, orokorrago, esaldiaren guneko izan, hizpideabar funtzioan ere joan baitaitezke. Mintzagaiari buruz, sintagma esaldiaren gunetik *ateratzea* dakarrenez, periferiakoa da informazioaren antolaerari dagokionez (nolabaiteko tartekitzat jotzekoa, hain zuzen ere); hala ere, mintzagaitzat —hots, *topikotzat*— markatzen diren sintagmek ez dute noski aldatzen beren funtzio *sintaktikoa* (aditzaren argumentu zein adjuntu izatea, alegia). Mintzagaiari dagokion periferia, beraz, sintaxiari dagokionez, esaldiaren barruan dago oraindik.<sup>7</sup>

<sup>7</sup> Informazioaren banaketak, ordea, nabarmen bereizten du mintzagaiaren zatia eta gainerakoa. Esate baterako, *modalitate* (galdera/esklamazioa/agindua) delakoari kasuan-kasuan dagokion doinu bereziak ez du hartzen mintzagaia: *Zure lehengusuarekin, [zer harreman duzu?]*<sup>galdera</sup>; *Baserritarrarentzat, [nolako galera!]*<sup>esklamazioa</sup>; *Ikusten duzunean, [esaiozu deitzeko]*<sup>agindua</sup>

Badira elementu batzuk, ordea, esaldian ageri direnak, aditzarekiko halako erlaziorik ez dutenak, eta, horrekin loturik, aipatu ditugun funtzio informatiboen markotik kanpo ere geratzen direnak (nahiz eta batzuek lotura estua izan mintzagai-funtzioarekin). Halakoen ezaugarriak nabarmenena, argumentu zein adjuntuetatik bereizten dituen, hauxe da: ezin daitezke galdegai izan (izan ere, ez diote erantzuten inolako galderari, ez baitute zentzu kontzeptualik):

*noski*  
*beharbada*  
*azken batean*  
*hala eta guztiz (ere)*

Halako elementuak, bada, perpausaren predikazio nagusitik eta esaldia-  
 ren gunetik kanpokoak dira beti, izatez, eta, informazioaren antolaeraren al-  
 detik, periferia arruntetik ere kanpo daude: *aparte* daudela esan daiteke, edo,  
 antzerkiko hiztegia erabiliz, *aparteak* direla,<sup>8</sup> hots, esaldiaren oinarriko in-  
 formazio-edukiari gainezartzen zaizkion bestelako, kanporagoko esanahi ba-  
 tzuk. Bigarren mailako predikazio bati dagozkiola esaten da.<sup>9</sup>

Esaldian tartekatzen diren halako elementuei, bada, guztiz egoki zaie,  
 puntuazioa puntuazio, *tarteki* hitza, baina tarteki guztiak ez dira inondik  
 inora ere halakoak, ia edozein adjuntu zein argumentu marka baitaiteke  
 —subjektua ez beste guztiak, hortxe-hortxe— tarteki gisa (koma, marra zein  
 parentesi artean), bai eta esaldi osoak ere.<sup>10</sup> Gure *aparte* horiek bada, tarteki  
 jakin, berezi batzuk dira: ohiko funtzio sintaktikoak (eta informatiboak) be-  
 tetzen ez dituztenak, ez baitira, formak forma, ez argumentu eta ez adjuntu.<sup>11</sup>  
 Funtzio diskurtsiboa dutela esan ohi da; prozesatzezkoa, eta ez kontzeptuz-  
 koa, irudikatzezkoa.

<sup>8</sup> Akotazio, albo-ohar edo *post-it* modukotzat ere jo litezke, ideia bera iradokitzen baitute irudi guztiok.

<sup>9</sup> Ezaugarri horiek, sintaxiari eta informazio-antolaerari *ere* badagozkion arren, erabat loturik daude elementuon interpretazio semantikoarekin: argumentuek eta adjuntu zirkunstantzialek *kontzeptu*-interpretazioa dute; orain ikusiko ditugunek, berriz, *prozesatze*-interpretazioa.

<sup>10</sup> Izatez, ez da halako alde handirik ere, berehala ikusiko dugunez: tartekizat markatzen den edozer, nolabait, *apartetzat* markatzen da, nahiz tarteki ez denean esaldiaren osagai arrunt izan. Beraz, *aparteak* eratzeko *espezializaturik* —diskurtsoko esanahi eta funtzio berezietarako gramatikalizatu edo lexikalizaturik— dauden esamoldeez ari gara hemen bereziki, eta ez *aparte*-zentzuko guztiez, ez bailitzateke posible halako guztien berri ematea.

<sup>11</sup> Definizio teknikoarengatik bat nahi izanez gero: haiek gabeko enuntziatuarenaz gainerako beste predikazio bat egiten duten tarteki askotarikoei deituko diegu *aparte*. Predikazio hori esaldi oso batek egin dezake, edo perpaus zein sintagma —gehienetan, adberbio— arrunt batek, edo pieza lexiko espezializatu batek.

Batzuetan, gainera, askotan, forma bera dute, esate baterako, adjuntu funtzioko sintagma (zirkunstantzial arrunta) eta bestelako elementu bere(i)zia (*aparte*)<sup>12</sup>:

- (5) Bestela jokatu beharko duzu. [= beste modu batean]
- (6) *Bestela*, etsi beharko duzu. [= bertzenaz, osterantzean]

Halakoetan, kokagunearekin loturiko tartekitasuna da, besterik gabe, oinarrizko adjuntuari beste *aparte*-adiera —ez-kontzeptual, diskurtso-prozesatzezko— berezi hori ematen diona.<sup>13</sup> Hots, halakoetan, erabilera jakin bat da zentzu diskurtsiboa ematen duena, eta ez pieza lexikoa (esanahi kontzeptual arrunta ere izan baitezake beste esaldi batean).

- (7) Bota al duzu gainera?
- (8) Bota al duzu, *gainera*?

Muga zehatz-zehatzik ezartzerik ez dagoen arren, *bestela* eta *gainera* sintagma —espezializatu samar bai baina ez erabat espezializatu— horien gisakoak ere berdintsu sar ditzakegu (bestetan duten adjuntu-erabilera gora-behera), erabat espezializatuekin batera, *aparte* kategoria horretan.

Hala, bada, *aparte* deitu diegunak, hartzen duten diskurtso-prozesatzezko esanahi bereziaren aldetik askotarikoak izateaz gainera, era askotakoak dira morfosintaxiaren aldetik ere. Ohikoenak, beharbada, adberbioen forma berekoak dira, eta haien artean sailkatu izan ditu gramatika tradizionalak (*gainera*, *bestela/osterantzean*, *menturaz/ausaz/akaso*, *nonbait*, *itxura denez*, (*nire*) *ustez...*), baina ugariak dira bestelako osaerak ere; are, batzuetan, adberbio-formakoen esanahi berarekin (*bestalde*, *beharbada*, *antza*, *nik uste*, *tira*, *batek jakin...*).

Osaeraren aldetik, beraz, kategoria sintaktiko gehienak ager daitezke *aparte*-funtzio berezi horretan, are esanahi berarekin, esalditik hasi (*jakina da*) eta sintagma soileraino (*jakina*), sintagma konplexuagotik igarorik, mendeko prepausak barne (*jakina denez*):

- (9) Gazteek, jakina/bistan da, ez dute halako ardurarik beren zahartzaroaz.
- (10) Gazteek, jakina/bistan denez, ez dute halako ardurarik beren zahartzaroaz.
- (11) Gazteek, jakina/noski, ez dute halako ardurarik beren zahartzaroaz.

<sup>12</sup> Prozedura hori bera da *bakarrik* (= bakarka) zirkunstantzialetik *bakarrik* (= baino ez) foku-adberbioa eman duena.

<sup>13</sup> Erosoago zaionak, irudika beza bi *bestela* eta bi *gainera* ditugula hiztegian, itxura berekoak: bata, adjuntu arrunta (*nola*, *nora*), eta bestea, berriz, *aparte* adiera berezikoa.

Horrek aztarna bat eman diezaguke halakoen izaeraz. *Aparteek* esaldia-  
ren mamia den perpausari buruzko beste predikazio baten balioa badute, nor-  
mala da predikazio hori egiten duena beste perpaus bat izatea funtsean edo  
oinarrian, nahiz gero perpaus hori laburturik edo itxuraldaturik agertu:

- (12) Gazteek, argi eta garbi [dago(enez)], ez dute halako ardurarik beren  
zahartzaroz.

Beste kasu batzuetan, ez da hain garbi geratuko *apartearen* jatorria (eta  
are haren osaera bera), baina, formak forma, erraz samar egotz dakieke  
*aparte* gehienei hor laburki azaldu dugun sorbidea. Bereziki gardenak diren  
kasuen artean, baldintzazko nahiz kontzesiozko perpausen ildotikoak ditu-  
gu<sup>14</sup> (*beharbada* eta *hala ere*):

- (13) Nahi bada (egia aitortu), (esan dezagun:) ez da ederra.  
(14) *Behar()*bada (egia aitortu), (zalantza dugu, baina ustea:) etorriko da.  
(15) Hori ikusi badu ere, ez du atzera egin.  
(16) Hori ikusita ere, ez du atzera egin.  
(17) *Hala ere*, ez du atzera egin.

Askotarikoak dira, nolana ere, *aparteak* eratzeko bideak.

Bada kasu bat bere berezian ia oharkabean pasatzen dena. Aurreko kasu  
batean bezala (*bistan da = bistan denez*), *aparte*-funtzioa berdin betetzen  
dute perpaus lokabeak zein menderagailudunak; kasu honetan, ordea, berez  
konparaziozkoa den *-n bezala* postposizioa da menderagailua (*-nez* mendera-  
gailuarekiko sinonimian), eta bitxiagoa da hor, beraz, perpaus lokabearekiko  
sinonimia (*ikusitu duzu = ikusitu duzun bezala*):<sup>15</sup>

- (18) Gehienek —ikusitu duzu— erantzun gabe utzi dute azterketako gal-  
dera hori.  
(19) Gehienek, ikusitu duzunez, erantzun gabe utzi dute azterketako gal-  
dera hori.  
(20) Gehienek, ikusitu duzun bezala, erantzun gabe utzi dute azterketako  
galdera hori.<sup>16</sup>

<sup>14</sup> Baldintza eta kontzesioa adjuntu dira (gramatikalarik gehienentzat), baina ez zirkunstan-  
tzial, eta ez dago galderarik ordezkari ditzakeenik (ezin, bada, galdegai izan): *periodo bimenbre*  
bat osatzen dute perpaus nagusiarekin.

<sup>15</sup> Erdaraz, are nabarmenagoa da menderagailu batzuek pairatzen duten esanahi-galera: *no*  
*podía ser de otra manera = como no podía ser de otra manera* [formalki, bi NOLA sintagma per-  
paus berean, arazua kontra: *como* eta *de otra manera*. Menderagailuak, bada, hor, sintaxi-lotura  
egiteko erabiltzen da, NOLA esanahia galduta.

<sup>16</sup> Halako joskeran, aldaera guztiotan, osagarria perpaus lokabe bihurtzea da mekanismoa:  
*Ikusitu duzu(:) gehienek erantzun gabe utzi dute(la) azterketako galdera hori*. Aditz deklarati-  
boekin ere berdin: *Gehienek —esan zuen— ...*

Beste *aparte*-iturri ugari samar bat aginterazko perpausena da, eta, oro har, esklamaziozko esaldiena, interjekzioak barne: *tira, aizu, (ai) ene...*

Formaz perpaus jakin batekin erlazio garbirik ageri ez denean ere, halakoez parafrasea daiteke, nolabait, *apartearen* esanahia; edo, inoiz, esanahiak:

*noski*<sub>1</sub> = *jakina (denez)*

*noski*<sub>2</sub> = *antza (denez)*

Ikuspegi horretatik, *tartekizko perpausordain* dei geniezaieke orain arte *apartetzat* izendatu ditugunoi beren barne-izaerari begiraturik —bigarren predikazio bat dakartenez, badute beti sakonean nolabaiteko *perpaustasuna*, semantikoki bederen—, baina funtsezkoago iruditzen zaigu *aparte* horrek, bere jatorri eta osaera gorabehera, esaldian tarteki gisa betetzen duen funtzioari begiratzea, hots, esaldiaren mamia —haren eduki proposizional oinarrizkoa— dakarren perpausari dagokion albo-predikazio bat izate horri.

Horregatik, hemendik aurrera, azpisail bat eginez *aparte*-funtzioa bete dezaketen tartekien sail zabal eta askotarikotik, *perpausondo* deituko diegu *aparte* lexikalizatupei, honako paralelismo hau baliatuz:

Aditzarekikoak

— adberbioak [kategoria orokorra]

— aditzondoak<sup>17</sup> (hitz zein esapide finko) [adberbio lexikoak edo lexikalizatuak]

Perpausarekikoak

— *aparteak* [kategoria orokorra]

— *perpausondoak*<sup>18</sup> (hitz zein esapide finko) [*aparte* lexikoak edo lexikalizatuak]<sup>19</sup>

Kontuan harturik, bestalde, adberbioa adjuntuen sailekoa dela, honela irudika dezakegu esaldiaren sintaxi-osaera abstraktua, geruzaz geruz (ez

<sup>17</sup> Lexikalizatu gabeko adberbio-sintagmei *adizlagun* deritze EGLUn, adjektiboen arteko *izenondo/izenlagun* oposizioa kalkatzen baitu adberbioen arteko *aditzondo/adizlagun* oposizioak.

<sup>18</sup> Ez dirudi beharrezko denik *perpausondo/perpauslagun* oposizio terminologikoa sartzea, *izenlagun* eta *adizlagun* terminoen paralelismoz, kontuan harturik halako aparte gehien-gehienak ez direla formaz aditzondoan modukoak (hots, konposatu gabekoak), adizlagunen modukoak baizik (hots, nola edo hala konposatuak).

<sup>19</sup> *Lexikalizatu* diogun lekuan, *gramatikalizatu* ere esan ohi da; hala ere, *gramatika* hitza sintaxi proposizionalaren zentzuan ulertu ohi dela kontuan hartuta, *diskurtsibizatu* litzateke termino egokiagoa halako elementu edo —tradiziozko hitza erabiltzearen— *partikulez* ari garela. Terminoaren egokitasuna gorabehera, dena delakoa forma finko, aldaezin bihurtu dela esan nahi da; markatzaileen kasuan, horrez gainera, *diskurtsio-prozesatze*ko zentzua hartzea da tasun bereizgarria, jatorrian zukeen esanahia (esanahi kontzeptual, irudikatzezkoa) funtzio diskurtsibo horretarako egokiturik.

nahasi, hala ere, deskribapen logiko-sintaktiko hau funtzio informatiboen kontuarekin, azalagoko maila bati baitagokio bigarren hori):<sup>20</sup>

[gunea: aditza]

- barneko geruza: aditzaren argumentuak
- kanporagoko geruza: aditzaren adjuntuak
- kanpoeneko geruza: perpausaren *aparteak* (bigarren mailako predikazioa)

[[aditza + argumentuak]<sub>gunea</sub> adjuntuak]<sub>perpauza</sub> *aparteak*

Hortik aurrera, bada, eta garbi utzita *aparte*-funtzio bera bete dezaketela egitura sintaktiko ez-finko —hots, gramatikalizatu gabeko— askok ere, *perpausondo* izena eman diegun *aparte* lexikalizatu horiek sailkatzea eta deskribatzea da noski hurrengo urratsa, eta ondoko atalean egingo dugu saiotxo bat bide horretan. Horrenbestez, letra etzana kenduko diogu *perpausondo* terminoari.

Ez da bistatik galdu behar, nolana ere, maila bat baino gehiago bereiz daitekeela gramatikalizazio- eta lexikalizazio-prozesuan eta, beraz, esapideen finkotasunean. Esate baterako, perpau hauetatik edozeinek bete dezake *jakina* perpausondoaren lekua *aparte* modura:

(21) hemen gauden guztiok dakigu(nez)

(22) burua duen edonork daki(enez)

(23) mundu guztiak daki(enez)

Kasu horretan, eskema fraseologiko bat genuke, eta ez esapide finko-finko bat. Halako *aparte* ez-finkoak, bada, funtzio berekoak izanik ere, ez ditugu sartuko perpausondoan sailean; bai, ordea, itxura bertuko esapide finkoak, nahiz eta, aurreko adibideetan bezala, esapidea osatzen duten hitzen esanahi arruntetik etorri beren *apartetasuna*, eta ez perpausondo izateko inolako espezializazio edo zentzu-aldaketa berezitik:

*jakina/bistan da/denez*

Tartean gelditzen dira, kontzeptu graduala baita *finkotasuna*, horren aldaerak:

*bistakoa/nabarmena/ageri-agerikoa da/denez*

Beste ikuspuntu batetik gauza bera esanda: perpausondo jakin batzuek eskatuko dute azalpenik xeheena (*noski, antza, bestela...*), beste *aparte*

---

<sup>20</sup> Barka biezadate sintaxilari trebatuek metaforizazio sinplifikatzaile hau. Ez du honek, jakina, inolako pretentsio zientifiko-teknikorik.

arruntagoetan baino ezkutuagoan egon baitaiteke haietan zinezko esanahi eta eginkizuna. Halakoen funtzionamenduaz jabetuz gero, are errazago izango da bestelako *aparte* gardenagoen jokoaz jabetzea.

Garbi geratuko ahal zen, baina aipa dezagun zehazki: *apartetasunari* dagokion tarteki-izaera berezkoa dute perpausondo guztiek, eta izaera hori ez da aldatzen, beraz, halakoren bat puntuazioak formalki tarteki gisa markatzen ez badu ere.<sup>21</sup>

Areago, perpausondo batzuek zalantzarik uzten ez dutenez beren *apartetasunaz* (*noski* eta *beharbada* beti dira perpausondo, *gainera* edo *bestela* ez bezala), hortixe eta horregatixe har daiteke lizentzia tarteki-puntuazioa *arintzeko* eta, bereziki, mendeko perpaus batzuetan ere halako perpausondoa komarik gabe txertatzeko, nahiz ohikoena tartekia esaldiarena izatea den, eta ez mendeko perpausena:

- (24) Esan du ezen, beharbada, etorriko dela.
- (25) \*Esan du, beharbada, etorriko dela.
- (26) Esan du beharbada etorriko dela.

Intonazioan ez da hain erraza tartekitasunaren markak ezabatzea, baina gerta daiteke zenbait testuingurutan halako perpausondo batzuekin, eta ez du kalterik eragiten hor puntuazioa arintzeak (berezko tarteki-komak ezabatzea, alegia):

- (27) Ez duzu(,) noski/beharbada(,) pentsatuko...
- (28) Bera etorriko da(,) ziurrenik/osterantzean.

Inoiz semantikoki hurbil egon daitezkeen arren, badira beste elementu batzuk *aparteen* sailetik bereiztekoak. Lehenik eta behin, juntagailuak, ez baitira tarteki. Juntagailuak ez dira beregainak sintaktikoki; atonoak dira, eta ez dute etenik beren eta segidakoaren artean. Konparatu, esate baterako, esanahi bertsuko biok:

- (29) Ez du gaindituko azterketa; *izan ere*, gutxi ikasi du. [*aparte*]
- (30) Ez du gaindituko azterketa, *ezen* gutxi ikasi du. [*juntagailu*]

Menderagailuak are urrutiago daude *aparteetatik*. Gramatikari batzuek juntagailuen sailean sartzen dituzte halako batzuk (!); hemen, menderagai-

---

<sup>21</sup> Kontu bera dugu *aspektu-adberbio* direlakoekin, berezko tarteki-koma kendurik ere garbi geratzen baita *aparte* direla (*denbora-adberbioak* ez bezala): *oraindik/oraino, jada(nik)/dagoeneko, honezkero, betiere, eskuarki/normalean/jeneralean, denborarekin, apurka-apurka...*

luak menderakuntzari dagozkionez noski, juntadurari dagozkionak baino ez ditugu hartuko juntagailutzat.<sup>22</sup>

Aurretiko *menderagailuek* (*nahiz (eta), zeren...*) juntagailuen antz handiagoa dute, bistan da, atzetikoeak baino (postposizio-atzizkiak aditzari loturik baitoaz). Aurretiko markok, ordea, gero aditzarekin loturik doan menderagailu arruntaren lagungarri modukoak baino ez dira (lagungarri sintaktiko eta semantiko, hala ere):<sup>23</sup>

- (31) Ez du gaindituko azterketa, (*zeren*) gutxi ikasi baitu. [*lagungarri* sintaktiko huts]
- (32) Ez du gaindituko azterketa, *zeren* gutxi ikasi duen. [*lagungarri* sintaktiko eta semantiko]
- (33) Ez du gaindituko azterketa, *nahiz (eta)* asko ikasi (duen). [*lagungarri* sintaktiko eta semantiko]

## 2. Perpausondoak

Lehenik eta behin, eta *perpausondo* terminoak nahas ez gaitzan, ohar bat egin behar da. Perpausa aipatzean, kasu honetan, hark proposizio gisa duen eduki predikatiboaz ari gara. Adjektiboek ere (eta adberbioek; adjektiboetatik eratorriek, batik bat) badute halako edukirik, eta horregatik joan daitezke perpausondo batzuk haiekin loturik, hots, formalki perpausetik beherako unitate sintaktikoak direnetan (puntuazioak ez du beti markatuko halakoetan tartekitasuna esaldiaren mailan bezala):

- (34) erabaki hori, *ustez*, egokia da [esaldiaren *aparte*]
- (35) [*ustez* egokia den] erabaki hori [perpaus txertatuaren *aparte*]
- (36) erabaki [*ustez* egoki] hori [adjektiboaren *aparte*]

Hala ere, ez da zertan ezinezkoa izan tartekitasun hori nabarmentzea halakoetan ere:

- (37) erabaki —*ustez*— egoki hori

Bestalde, kontuan hartu behar da badela sinonimia garbia perpaus esplitzituarekiko:

- (38) erabaki [*ustez* egoki (den)] hori

<sup>22</sup> Alegia, *juntagailuak* eta *menderagailuak* bereiziko ditugu, eta ez *koordinaziozko juntagailuak* eta *subordinaziozko juntagailuak*.

<sup>23</sup> Bi zati dituen menderagailua dela esatea litzateke beharbada egokiena: aurretiko partikula (*zeren, nahiz*) gehi aditzari lotua (*bait-, -en*).

Euts diezaiogun, bada, perpausondo terminoari,<sup>24</sup> eta ikus dezagun nola sailka daitezkeen perpausondoak semantikoki:<sup>25</sup>

1. Esaldi-ekintzari dagozkionak: *benetan, egia esan*
2. Esparru-zehaztaileak: *ekologikoki* (= *ekologiari dagokionez*)
3. Esaldiaren modalizatzaileak [modalitatea: hiztunak zer jarrera duen esanarekiko]:

3a) Balioespenekoak: *zorionez/zoritxarrez, ironikoki, harrigarriro*

3b) Modalak<sup>26</sup>

epistemikoak (sinesgarritasuna, posibilitatea, zalantza): *zalan-tzarik gabe, ziur aski, antza, nonbait, beharbada,*

deontikoak (betebeharra): *nahitaez, ezinbestean*

ebidentzialak: *jakina, diotenez, ustez*

### 3. Lokailuak

Beste *aparte* mota batean, elementua doan segmentuaren aurreko testuinguruarekiko lotura egitea da *apartearen* funtzioa. Funtzio hori betetzen duten aparteei, bada, bete-betean dagoakie *lokailu* terminoa.

Terminologia, hala ere, ez dago guztiz finkatua, eta, *lokailu* (erdaraz, «conector (discursivo)») termino horren ondoan, *diskurtso-* nahiz *testu-markatzaile* etiketa erabiltzen ari da maiz azkenaldian. *Antolatzaile* ere erabiltzen

<sup>24</sup> Erdarazko terminologia teknikoari jarraituz gero, *operatzaile* (*diskurtsibo*) liriateke gure *perpausondoak*, baina *operador* (*discursivo*) terminoak *aparte*-tarteki ez diren elementu batzuk ere hartzen ditu, eta zabalagoa da, beraz. *Nueva gramática de la lengua española*n, sinonimotzat jotzen dira (!) *conector* eta *marcador* (*discursivo*). Gure *perpausondoei*, berriz, *adverbio* (nahiz *locución adverbial*) *oracional* deritze erreferentziatzko lan horretan (*operatzaile* hitza, antza, *operatzaile sintaktikoentzat* gorde da, eta ez dirudi zentzugabea, bestela *operatzaile diskurtsiboak* bereizi behar bailirateke *sintaktikoetatik*). Lokailu edo *konektoreekiko* aldea: doazen esaldiari berari dagozkionak izatea, eta ez aurreko esaldi edo segmentuarekiko erlazioari dagozkionak. Hala ere, ez da beti erraza bereizten, oposizio terminologiko hori aplikatzerakoan, aurreko esaldi-segmentu zehatz bat den erreferentzia, ala aurreko diskurtso-testuinguru orokorra, eta desadostasun-iturri gerta daiteke hori. Gaztelaniazkoentzat, ikus Fuentes (2010). Azalpen on bat dator, zabalagoa eta zehatzagoa (*operatzaile/konektore* bereizkuntza berari eutsirik), ikus Bosque & Demonte (1999). Erreferentziatzko bibliografia xeheagoa ere, lan horietan aurkitu daiteke.

<sup>25</sup> Aurreko ohar batean aipatu ditugun *aspektu-adberbioek* ere balukete lekua *perpausondoen* artean, zeren, gramatika askok aspektua aditzarekin soilik lotzen badute ere, perpaus osoaren ezaugarria baita, izatez, *aspektua*. Hala ere, bere horretan eutsi diogu RAE (2009) *Sintaxis II* liburukiko 30.10 atalean datorren sailkapenari, estandarra delako, batetik, eta, bestetik, harekiko koherentzia ez galtzearen.

<sup>26</sup> Aditzekin integraturik ere ager daiteke, jakina, nozio modalaren adierazpena: *dateke, behar du, ote/omen da...*

da batzuetan aurrekoekin nahasian, baina azpisail bat da antolatzaileena halako markatzaileen artean.

Gure ustez, diskurtso-markatzaile<sup>27</sup> lexikalizatu(en)entzat gorde daiteke *lokailu* terminoa (*aparteetan perpausondoak* bereizi ditugun gisa bertsuari), nahiz *diskurtsoa markatze* horretan kide izan guztiok.

Didaktikoki ere, egoki dirudi juntagailu/lokailu bereizkuntzak, oinarri-oinarrizkoa baita esaldien nahiz segmentuen elkarketan. Lokailuak, elementuok erlazio semantikoz elkarrekin lotu bai, baina ez ditu sintaktikoki juntatzen. Horregatik dira bateragarriak, esaldi berean, juntagailua eta lokailua. Eta horregatik dugu aukera juntagailurik gabe ere —hots, alborakuntzaz— esaldiak elkartu eta, lokailuen bitartez, haien arteko erlazioa (*lotura*) adierazteko.

Hurrengo atalean ekingo diegu, bada, esaldien gainetiko funtzio diskurtzibo hori betetzen duten *aparte*ei.

#### 4. Diskurtso-markatzaileak

Aurreko sailetan ere, maizenik adberbio izanagatik perpausondoak kategoria morfosintaktikoaren aldetik, garbi geratu da semantikak eta pragmatikak agintzen dutela horren gainean, eta askotariko kategoria sintaktikoak balia daitezkeela diskurtsoan perpausondotzat, eta perpausondo batzuk, hain zuzen ere, adberbio-kategoria horretan kokatzerik ez dagoen osaera dutela, forma finkoak izatea gorabehera: *antza, nik uste, beharbada, oro har...* *Aparte* delako funtzio informatiboak, bada, askotariko formak baliatzen ditu esanahi bereziok zertzeko, eta adjuntu ez eta *aparte* izate horrek ematen die kasuan kasuko esanahi espezializatu hori, are formaz adberbio arrunt direnean: *bestela, gainera, ustez...*

Hala, bada, morfosintaktikoki edonola osaturiko *aparte* batek bete lezake, berez (teorian behintzat), perpausondo zein lokailu estereotipatuaren lekua, baldin eta haren esanahia parafraseatzeko gai bada:

*jakina = bistan da = nabarmen ageri denez*  
*beraz = horren ondorioz = horiek horrela = kontua zertan den ikusita*

Bereziki gertatzen da hori mintzagaiaren lekua hartzen duten *aparte*ekin (ez ahaztu mintzagaia ere tarteki mota bat dela funtsean): *orduan, hala, horretan, bestela...* Ekar dezagun gogora, esate baterako, perpausondo esparru-

<sup>27</sup> Perpausondoak, *esaldi-markatzaile*tzat joko genituzke, eta ez *diskurtso-markatzaile*tzat. Esan bezala, terminologia ez da nahi bezain zehatz eta finkatua; hala ere, garbi samar dago *perpausondo/lokailu* (edo *operatzaile/konektore*) bereizkuntza.

zehaztaileen azpisaila. Ez dirudi alde handirik dagoenik, erabilera horretan, aukera hauen artean:

*ekonomikoki*  
ekonomiari dagokionez  
ekonomiaz ari garelarik  
ekonomiaren ikuspuntutik

Sinonimiazko erlazioan ere antola daitezke halako *aparte* asko (forma finkokoak nahiz bestelakoak), mintzagaitzat sailkatu zein ez:

(39) Bestela, ekonomikoki, sosen aldetik...

Ez dago beti muga zehatz-zehatzik, bada, *aparte* (perpauzondo zein lo-kailu) espezializatu edo lexikalizatuaren eta mintzagai nahiz tarteki arruntaren artean. Graduzkoa da kontua, prozesu bizia baita kontzeptuzko esanahitik diskurtso-prozesatzezko zentzura lerratzea. Izatekotan, funtzio-espezializazioa eta forma-finkotasuna dira, hain zuzen ere, neurria.<sup>28</sup>

Hori horrela bada *aparte* deitu diogun funtzioaren kasuan, askoz ere zailagoa izango da, noski, muga zehatza ezartzea *testu-antolatzaile* nahiz *diskurtso-markatzaile* esan ohi zaien kasuan.

Izan ere, ba ote da, besteak beste, halako funtzio testual edo diskurtsiborik betetzen ez duen mintzagairik (edo mintzagai/galdegai katerik)? Eta puntuazioa, berriz, ez al da *testu-antolatzaile* nagusietarikoak? Eta, juntagailuak juntagailu direla jakinda eta zertarako diren, ba ote da beharrik, zinez, lokailuak ez ezik juntagailuak ere *testu-* zein *diskurtso-markatzaile* edo *-antolatzaileen* zaku malguaren malguz hondogabe horretan sartzeko?<sup>29</sup>

Galderon erretorikotasunak iradokitzen duenez, pentsatzekoa da ez ote litzatekeen hobe *testu-antolatze* nahiz *diskurtsoaren gorabeherak markatze* funtzioaz hitz egitea, eta gero ikustea zeregin horretan parte hartzen duten elementuetatik zein diren espezializatuak edo bereizgarriak, eta, bereziki, kategoria eta funtzio gramatikal eta informatibo arruntetan katalogatu eta azaldu gabe daudenak (hots, kontzeptu-adiera galdu eta prozesatze-adiera hartuz *diskurtsibizatu* direnak).

<sup>28</sup> Kasu horretan eta bestetan, honelako zerbait postula liteke adberbioak hor halako esanahia hartzeko: *ekonomikoki* (*hitz eginez*). Hala, aipaturiko beste aukera esplizituagoen kidekoa litzateke hori ere, esanahia enuntziatuari ez baizik enuntziatioari dagokiola adierazten duen eranskina isiltzea gorabehera. Antzeko isiltzeak iradoki daitezke beste kasu batzuetarako ere: *bestela* (*ger-tatuz gero*), (*aipaturiko*)*horrez gainera*...

<sup>29</sup> Sartzen hasita, menderagailuak ere sartuak ditu jada ausartenak edo alferrenak; ez baita hori ere harritzekoa, zenbaitek ez daki-eta praktikan bereizten, asmoak asmo eta predikuak prediku, sintaxi-kategoria gordinak, informazio-antolaerari dagozkionak eta diskurtso-loturak (ez eta diskurtsoak eta hitzaldiak ere, horretara bagoaz).

Esan ohi da halako antolatzaile edo markatzaileak beste elementu batzuetatik bereizten dituen esaldiaren mugetatik esaldien arteko erlazioetara pasatzea dela (hots, diskurtsoaren mailakoa izatea), baina gauza bera esan daiteke, lokailuez ez ezik, baita anafora zein katafora askori buruz ere (halako anafora-kataforen fosiltze modukotik datoz, hain zuzen, lokailu asko).

Beraz, juntagailuak, lokailuak, anaforak eta hainbat mintzagai eta *aparte*-tarteki eta abar kenduz gero, zer geratuko litzaiguke? Zinez katalogo bereizi bat osatzeko adina elementu zehatz bilduko bagenu, aurretik ezarriak dauden kategorietan sailka ez litezkeenak, orduan has gintezke pentsatzen bada-tekeela esapide-kategoria autonomo bat halako izendatze berezia eskatzen duena.<sup>30</sup>

Halakotzat jo ohi diren kasu guztiak edo gehienak, ordea, aise sar daitezke aurretik aipatu ditugun kategorietan: perpausondoak, lokailuak. Alegia: guk hemen *aparte* deitu diogun funtzio informatiboa betetzen duten elementuak direla (puntuazioarekin, juntagailuekin, mintzagai-tartekiekin eta abarrekin batera) diskurtsoaren jariora markatzen eta testuaren haria antolatzen duten dena delako zerok.

Kontuak halatsu direla erraz ikus liteke, esate baterako, dabiltzan ugarrien artetik aukeratu eta geuretu dugun sailkapen honetan (RAE 2009),<sup>31</sup> non testu- edo diskurtso-funtzio logiko-semanticoko jakin batzuk baitira sailak definitzen dituztenak, eta tarteki-izaerako elementuak egokitzen baitira sail bakoitzaren adibidetzat (batzuetan, elementu bera sartzen da sail bat baino gehiagotan):<sup>32</sup>

1. Emendiozkoak eta zehaztapen eta partikularizaziozkoak: *gainera, bestalde, izan ere, hain zuzen (ere), besteak beste, preseski, partikularzki, batez ere (batik bat, bereziki, nagusiki)*.
2. Adbertsatiboak eta kontraargudiozkoak: *hala ere (halaz guztiz, haatik, nolana [dela] ere), edozein kasutan, ordea, aldiz, berriz, aitzitik*.

<sup>30</sup> Horrek ez du inola ere ukatzen *diskurtso-markatze* funtzioa betetzen duten zer guztien azterketaren interesa. *Diskurtso-markatzaile* kategoria edo elementu-zakuaren laxotasun gehiegiak dakarren edozerkeria genuke saihestu beharra. Edo elementu espezifiko, ongi definitu batzuk hartzen ditugu aztergai, edo, bestela, diskurtsoa bere osotasunean.

<sup>31</sup> Kanpoan geratzen dira, gure honetan, elkarrizketa bizian hainbat funtzioa betetzen dituzten solas-markatzaile bereziak: *eee, et-et-et, b(u)eno/bon, beinke, enfin, kasik, klaro, kuantu, porztierto, zera...*

<sup>32</sup> Halako *aparte*ekin egiten diren markatze-antolatze diskurtsibo-testualak, bidenabar esanda, ez dira denak esaldien artekoak, hala nola adibideak aurkeztekoak (*esate baterako, adibidez*), kataforei baitagozkie. Zorionez, juntagailuak-eta zaku berean sartzea ez zaie otu sailkapen-egile zuhurrei: *hala ere* lokailua bai, baina *baina* juntagailua ez da hor aipatzekoa (nahiz sinonimia gertatu, biak adbertsatiboak izanik); *kontuak kontu* esamoldea bai, baina perpaus kontzesiboak ez (nahiz antzeko ideia adieraz daitekeen halakoekin ere).

3. Kontzesiozko esapideak: *kontuak kontu, (...) gorabehera (-en despit)*.
4. Ondoriozkoak eta ilatiboak: *beraz (ondorioz, orduan, hortaz), hala, bada*.
5. Azalpenezkoak: *alegia (hots, hau da)*.
6. Birformulatzaileak: *bestela esanda, zehatz(ago)/zehazki(ago)/argi(ago) [esanda]*.
7. Adibideak aurkeztekoak: *adibidez, esate baterako*.
8. Zuzentzaileak: *hobeki/hobeto esanda/esatearren*.
9. Aurreko diskurtso zatia laburbiltzekoak: *hitz batean, laburbilduz*.
10. Antolatzaileak: *lehenik eta behin, hasteko, amaitzeko*. [Elkarreki-koak: *batetik... (eta) bestetik; lehenik... bigarrenik... azkenik*].
11. Argudioak bermatzekoak: *hala (horiek horrela [direla])*.
12. Digresiozkoak: *bide batez, bidenabar [esanda], parentesi artean esanda*.

Halako sailkapenak, aise ikusten denez, moldakorrak eta hobegarriak dira beti, zabala eta ia hondorik gabea baita eremua.<sup>33</sup>

Bestalde, aski bistakoa da askotan enuntziatioaren erreferentzia, esplizitua batzuetan (*esanda*); eta orobat nabaria enuntziatuei erreferentzia egiten dieten anaforen eskuhartzea (*hori*). Kasu batzuetan, aipatu dugun bezala, mintzagaiek berezko duten esparru-zehazte funtzioa dago oinarrian, besterik gabe (*hasteko, lehenik, (alde) batetik*).<sup>34</sup>

Formaz, berriz, adberbioak edo esapide adberbialak izanik ere gehienak, bada, esan bezala, bestelakorik ere.

Lehendik iradoki duguna da ondorioa: diskurtso-markatzea esaten zaion hori —*markatze* horren aldaera ugari bezain zehazki sailkagaitzak gorabehera— funtzio (semantiko-pragmatiko, informatibo) bat da, berezia funtzio gisa baina diskurtsoko elementu arrunt askoz baliatzen dena. Bakanak dira, beraz, *diskurtso-markatzaile* peto-petoak, hots, beti eta soilik halakotzat erabiltzen direnak.<sup>35</sup>

<sup>33</sup> Beste sailkapen ondo arrazoitu bat: Cristina Fuentes Rodríguez (2010: 14-15). (Ez nahas *operatzaile* (diskurtsibo) horiek *operatzaile sintaktikoekin*).

<sup>34</sup> Delako *esparru-zehazte* hori adierarik zabalenean hartzen bada, sintagmarik arruntenez osaturiko tartekiak ere jo daitezke, gutxi-asko, *esparru zehaztailetzat*: *Tripa-festa horri, Bizkai aldean / toki batzuetan, txarriboda izen bitxia ematen diote*.

<sup>35</sup> Interneten kontsulta daiteke gaztelaniazkoen beste hiztegi bat: Antonio Briz, *Diccionario de partículas discursivas del español* (<http://textodigital.com/P/DDPD/>). Kasu horretan, bereizi gabe datoz zerrendan *konektoreak* eta *operatzaileak* (*partícula* bakoitzaren erabilerak definitzen du bere izaera), baina zorrotza da markatzaileok zerrendan sartzeko irizpidea (esate baterako, adberbioak ez dira sartzen, non eta erabilera diskurtsiboa duten *soilik*).

**Aipamenak**

- Briz, Antonio. 2008. *Diccionario de partículas discursivas del español* [<http://textodigital.com/P/DDPD/>]
- Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea. 1991-2012. *Euskal Gramatika: lehen urratsak (EGLU)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fuentes Rodríguez, Cristina. 2010. *Diccionario de conectores y operadores del español*. Madrid: Arco Libros.
- Real Academia Española; Asociación de Academias Americanas. 2009. *Nueva gramática de la lengua española*. Madrid: S.L.U. Espasa Libros.
- Bosque Ignacio & Violeta Demonte (eds.). 1999. *Gramática descriptiva del español*. Madrid: S.L.U. Espasa Libros.